

Txillardegi utzitako ondarea ulertzen laguntzeko saiakera laburra plazaratu du Fito Rodriguezek

Gorka Erostarbe Donostia

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi-ren figurari metafora bat atxiki behar balitzaio, mahatsondoarena erabiliko luke Fito Rodriguez idazle eta EHUko irakasleak. «Mahatsondoak adar ugari eta emankorrak izaten ditu, eta bertatik ateratzen den produktua hil ondorenean ere ondu egiten da». Txillardegiaren ekarpen zabalaren inguruan «jakin-mina pizteko ale bat baino ez da» Txillardegi liburua, Rodriguezek berak Erein argitaletxearen Haran bilduman plazaratu berri duen saiakera laburra.

Gertutik gertura ezagutu zuen Txillardegi Rodriguezek, besteak beste, biak unibertsitatean irakasle aritu zirelako. Aurten zendutako idazle, hizkuntzalari eta politikaren pentsamendu nahiz ekinbidearen inguruko hurbiltze bat egin du Rodriguezek. «erabat modu subjektiboan, eta neutral izateko inolako asmorik gabe».

Hasieran ez zuen liburua idatzi nahi Rodriguezek, «ez bainuen uste, besteak beste, Txillardegi-emaria liburutxo batean kabi-



Antxon Lafont Haran bildumako zuzendaria eta Fito Rodriguez Txillardegi/liburuaren egilea. JUAN CARLOS RUIZ / ARP

Zorrak kitatzen hasteko

zuten zenik», baina bere burua zorretan sentitzen zuen Txillardegi-rikiko, eta hala erabaki zuen lana idaztea. «dazki honen bidez, harekiko zorra kitatu nahi izan dut, edo kitatzen hasi, behintzat». Rodriguezen ustez, «ia ezinezkoa da» Txillardegiaren ekarpena aha-lerin eta liburu bakar batean bil-tzea. «Berak bazekien jakin-mina pizten gaien inguruan, eta horixe lortu nahi luke liburu honek, bere

laburrean». Haran bildumako laugarren alea da Txillardegi, 40 orri inguru ditu, eta euskaraz idatitako aurrenekoa da.

Politikan, literaturan eta euskararen normalizazioan Txillardegi egindako ekarpena aletzen du Rodriguezek, eta, batez ere, azpimarratzen du. irakaskuntzan bezala, ikerkuntzan eta hedakuntzan ere «paradigma berri bat» zedarritu zuela. «Orain, batez ere,

ikerkuntzan egiten da ahalegina, irakaskuntza eta hedakuntza alboratuz».

Liburuaren ondotik, Txillardegi-aren figura ulertzeko ale eta aha-lerin gehiagoterriko dira, Rodriguezek berak adierazi duenez. Euskaltzaindiaren Euskera aldizkariak eta Euskal Idazleen elkar-teak Hegats-ek Txillardegi eskainitako aleak argitaratuko dituzte orain hurrena.

Haur literaturari buruzko topaketa egingo dute gaur Huhezin

Erredakzioa

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 13. Literatura Topaketa antolatatu du, eta gaur egingo dute unibertsitatean bertan. Iaztik, egun bakarreko mintegi edo topaketa bihurtu da. Aurtengoa haur literaturari eskainiko diote, honako izenburu honekin: *Haur Literatura. Helduentzako Literatura*.

Juan Kruz Igerabidek *Bizirik irauteko literatura* hitzaldia egingo du. Haur literaturan datzan bizitzarako jakintza eta pertsonaren eraikuntzarako bidea azalduko du. Eider Eibar ilustratzaileak, *Marrakki bizia* hitzaldiarekin, irudiaren lengo-aiia azalduko du. Goizean izango dira bi hitzaldi horiek. Arratsaldean, Yolanda Arrietak *Iruditik hitzera. Literaturaren baliabideak* ezagutzeko tailer-bilduma saioa eskainiko du, eta Pello Añorgak *Haur ipuinak helduentzat: helduak izatera heltzeko* ipuin kontaketa egingo du.

HITZALDI ZIKLOA

Kazetaritza eta hedabideak berriz asmatzen

EGITARAUA

Apirilak 26, osteguna

11:00etan, Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean

Juan Varela

<http://periodistas21.blogspot.com>

“Testuinguruaren arabera komunikabideak

Garai zailetan informazio hartzaileei laguntzeko kazetaritza”

Maiatzak 8, asteartea

11:00etan, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean

Pablo Mancini

<http://www.pablomancini.net/>
<http://www.amphibia.com.ar/>

“Kazetaritza hackeatzen. Komunikabide banatuak eta hartzaileei begirako berrikuntza”

Maiatzak 24, osteguna

11:00etan, Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean

Vicent Partal

<http://www.vilaweb.cat/>

“Komunitatea eta parte hartzea: egunkaria eta prentsa berriz asmatzen”

Izen ematea DOAN

Eman izena apirilaren 25a baino lehen
komunika@berriataldea.net edo (0034) 943-304030 telefonoan

Antolatzaileak

berria inno**basque**
fundazioa

BERRITZEN